



LANKIDETZA GUNEA (COWORK GUNEA) ERABILTZEKO ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2022/06/27an

1. artikulua - Ordenantzaren helburua

Ordenantza honen helburua da Lankidetza (cowork) Gunearen erabilera arautzea.

2. artikulua – Lankidetza Gunearen helburua

Lankidetza Gunearen helburua da Bergarako eta Debagoieneko ekintzaileei lanerako espazio partekatu bat eskaintzea pertsona bakarrentzat (aurrerantzean “postua”); lankidetzazko ekonomia ereduaren oinarrituta, sinergiak sortzeko, elkarrekin ikasteko, harremanak sustatzeko eta proiektuak eta ezagutzak partekatzeko balioko duena.

3. artikulua – Zerbitzuaren onuradunak

Bergarako Lankidetza Gunea honako erabiltzaile hauei zuzenduta dago: Bergaran edo Debagoienean erroldatutako ekintzaileak (Enpresa proiektuan bi pertsona ekintzaile edo gehiago diren kasuetan nahikoa izango da eskatzailea Bergaran edo Debagoinean erroldatuta egotea).

4. artikulua – Lankidetza Gunearen erabilera

Lankidetza Gunearen bidez, Bergarako Udalak espazio bat eskaintzen du enpresa proiektu berriak garatzeko eta ekintzaileen eta bertan sortutako enpresa berrien arteko elkarlana sustatzeko. Horretarako espazioa Bergarako UNEDeko eraikinean egokitu da.

Lankidetza Guneak honako hau eskaintzen du:

1. Baliabideak:

- Erabiltzaileari esleitzen zaion postuaren erabilera (mahaia eta aulkia).
- Espazio komunak erabiltzeko aukera (bilera gela).
- Ekipamendua: Arbela, inprimagailua, wifi sarea.

2. Zerbitzuak:

- Sare konexioa.
- Argindarra, ura.
- Espazio komunaren garbiketa.

3. Erabilera ordutegiak:

Zerbitzua emango da UNEDa irekita dagoen egun eta orduetan. Zerbitzuaren erabiltzaileei urtero jakinaraziko zaizkie zerbitzua erabiltzeko egutegia eta ordutegia.

Ohiko ordutegia honako hau izango da: asteartetik ostiralera –jaiegunak izan ezik– 8:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 8:00etatik 14:00etara.

Uztailean, 8:00etatik 14:00etara.

Dena den, ordutegi hau une bakoitzean egokitu ahal izango alkatearen dekretuz, ordenantza hau aldatu behar izan gabe. Erabaki hori une horretan zerbitzua erabiltzen ari diren erabiltzaileei jakinaraziko zaie.

4. Bilera gelaren erabilera:

Bilera gela modu eraginkorrean kudeatzeko, aurrez erreserba egingo da. Horretarako, euskarri bat jarriko da erabiltzaileen eskura, espazioa libre dagoen kontsultatu eta erreserbak egin ahal izateko. Erabiltzaileek erreserba orduak errespetatu beharko dituzte.

Bezeroen, hornitzaileen, kolaboratzaileen edo kanpoko beste edozein pertsonaren bisitak jasotzeko, bilera gela erabiliko da. Lantokian bertan kanpoko pertsonekin izandako bilerak salbuespen kasuetan bakarrik onartuko dira eta Lankidetzak Guneak gainontzeko erabiltzaileen baimena beharko dute.

Erabiltzaile bati egokitzen zaion postua pertsonala izango da eta ezingo zaio beste pertsona bati transferitu. Bergarako Udalak erabiltzaile bakoitzari giltza bat emango dio eta giltza hori ezingo zaie utzi hirugarren pertsonari.

Onartutako proiektu bakoitzeko gehienez ere postu bat bermatuko da; dena den, ekintzaileak bat baino gehiago balira, beste postu bat ere eskatu ahal izango dute eta udalak aztertuko du. Norberaren postua beteko duen pertsonak berak egin beharko du eskaera.

Lankidetzak Gunearen izaera eta helburuak mantentzeko, erabiltzaileen presentzia fisikoa funtsezkoa da. Hori dela eta, Bergarako Udaleko Garapen Zerbitzuak gutxienezko erabilera presentzia betetzea eskatu ahal izango die erabiltzaileei.

Lankidetzak Gunea erabiltzeko eskaerak ordenantza honen 6. artikuluan ezarritako balorazio irizpideen arabera aztertu eta ebaluatuko ditu Bergarako Udaleko Garapen Zerbitzuak. Behin aztertuta eta ebaluatuta, Herritarren Batzordearen irizpenarekin batera, alkateari edo honek eskuordetutako organoari helaraziko zaizkio erabakia har dezan.

5. artikulua – Eskabideak bideratzea

Lankidetzak Gunea erabiltzeko eskabideak idatziz egin behar dira, eredu normalizatuaren arabera.

Behin eskaera orria betetakoan eta sinatutakoan, ordenantza honetan zehaztutako dokumentazioarekin batera Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da.

Eskaera hortik Garapen Zerbitzura bidaliko da, bertan izapidetu dezaten. Herritarren Batzordeak aurreko hilabetean jasotako eskaera guztiak aztertuko ditu, eta erabaki proposamena helaraziko dio Alkateari edo honek eskuordetutako organoari.

Eskaera orriarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Eskatzailearen NANaren kopia; ekintzaileak bat baino gehiago balira, ekintzaile guztien NAN agirien kopia.
- b) Negozio ekimenaren bideragarritasun plan bat egina badu eta Debagoieneko Garapen Agentziako pertsonal teknikoaren aldeko ebaluazioa jaso badu, plan horren kopia bat.

Eskaeren kopurua erabilgarri dauden postuena baino handiagoa baldin bada, lorturiko puntuazioaren arabera esleitu dira tokiak, 6. artikuluko balorazio irizpideen arabera. Eskabide horiek, Herritarren Batzordearen irizpenarekin batera, Alkateari edo honek eskuordetutako organoari helaraziko zaizkio berari buruz erabakia har dezan.

Lankidetzak Gunean posturik lortu ez duten proiektuak lortutako puntuazio ordenaren arabera itzarote-zerrendan geratuko dira. Zerrenda horretan sartzeko data ezartzeko, erabakia hartu den dekretuaren data hartuko da erreferentzia bezala. Toki bat libre geratzen den momentuan, itzarote-zerrendan dauden eskaerak beste eskaera berriekin batera lehiatuko dira toki horren

esleipenerako, eta puntuazio ordenaren arabera banatuko dira. Berdinketa kasuetan, eskaera dataren ordena hartuko da kontuan eta antzinasun handiena duen eskaera lehenetsiko da.

Itzarote-zerrendan dauden ekintzaileek eskaeraren balorazio berria eskatu ahal izango dute, hasieran aurkeztutako dokumentazioari gehigarriren bat gehitu nahi badiote edo aldaketak egin dituztela egiaztatzen badute.

6. artikulua - Proiektuak balioesteko irizpideak

Proiektuak Herritarren Batzordeak baloratu eta diktaminatuko ditu, irizpide hauen arabera:

- a) Proiektuaren sustatzailea 6 hilabeteko antzinasunaz Bergaran erroldatuta egotea (6 puntu) edo Debagoieneko beste herri batean (3 puntu).
- b) Negozio ekimenaren bideragarritasun plan bat egina izatea eta Debagoieneko Garapen Agentziako pertsonal teknikoaren aldeko ebaluazioa jasota izatea (3 puntu).
- c) Enpresa jarduerak orokorrean Bergararentzat eta Lankidetza Gunearentzat izan dezakeen interes maila (Gehienez ere 3 puntu).
- d) Antzinasuna itzarote zerrendan, hileko 0,5 puntu eta gehienez 3 puntu.

7. artikulua – Baimena eman zaiola onuradunari jakinaraztea

Alkateak edo berak delegatutako organoak Lankidetza Gunea erabiltzeko baimena ematea onartzen duenean, erabakia onuradunari jakinaraziko zaio. Hamabost eguneko epean uko egiteko idatzia aurkezten ez badu –erabakia jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita–, ulertuko da onartu egin duela.

8. artikulua – Baimenaren iraupena

1. Lankidetza Gunearen erabilera aldi baterako izango da:

- Bideragarritasun plana egiten edo enpresa martxan jartzeko pausoak ematen ari diren bitartean erabili ahal izango dute gunea ekintzaileek.
- Gehienez ere urtebetez erabili ahal izango dute, baina epe hori amaitu baino lehen eskatu ahal izango dute gehienez ere beste urte batez luzatzea, eta Garapen Zerbitzuak txostena egin ondoren udalak erabakiko du.
- Luzapen eskaerak postuak libre dauden bitartean onartu ahal izango dira. Lankidetza Guneako postuak beteta dauden kasuetan, eskatzaile berrien eta itzarote zerrendan dauden eskaerak lehenetsiko dira.

Aurreko pasarteetan zehaztutako epe horren barruan enpresa eratuko balitz, autonomoek edo sortutako mikroenpresek postua erabili ahal izango dute gehienez ere sei (6) hilabeteko epean, ordenantza honetan zehaztutakoa beteta eta dagokion prezio publikoa ordainduta.

Zentzu horretan, ekintzaileak autonomo edo mikroenpresa bezala eratzen direnetik gehienez ere 15 eguneko epean udalari horren berri eman beharko diote, idatzia aurkeztuta Udaleko Erregistro Orokorrean.

Aurreko bi pasarteetan zehaztutako momentuetan erabilera epea amaitzen zaion erabiltzaile bat baino gehiago egonez gero, Lankidetza Gunea uztera behartuta zein erabiltzaile egongo litzatekeen zehazteko, bertan daramaten denbora hartuko da kontuan. Horrela, antzinasun handiena duen erabiltzaileak bere postua libre utzi beharko du.

2. Kontratuaren indarraldia bukatu baino lehen postua erabiltzeari utzi nahi dioten erabiltzaileek eskaera idatziz egin beharko dute, eskaera eredu normalizatuaren arabera eta toki hori udalaren esku noiz utziko duten eguna zehaztuz. Lankidetzak Gunea kontratuaren mugaeguna baino lehen uzteak ez du berarekin inolako zigorrik ekarriko, baina prezio publikoa ordaindu beharko du ordenantza fiskalak hori zehazten badu eta ordenantza fiskalean zehaztutako eran.

3. Lankidetzak Guneako erabiltzaile izateari utzi eta gero, gutxienez urtebete igaro beharko da berriz gunea erabiltzeko eskaera onartu ahal izateko.

9. artikulua - Zerbitzuaren onuradunen betebeharrak orokorrak

Erabiltzaileak behartuta daude Lankidetzak Gunearen udaleko arduradunak metodologia eta prozedurei buruz ezarritako arau edo ildo nagusiak betetzera, baita portaerari eta instalazioen erabilera eta zaintzari buruz ezarritakoak betetzera ere.

Erabiltzaileek dagozkien zergak, tasak eta prezioak ordaindu behar dizkiete herri-erakundeei.

Bergarako Udalak erabiltzaileei noiznahi eska diezazkieke legezko betebeharrak betetzen dituztela frogatzeko agiriak.

10. artikulua - Onuradunen betebeharrak bereziak

Lankidetzak Gunea erabiltzeko onuradun diren pertsona fisikoek edo juridikoek indarrean dauden prezio publikoak ordaindu beharko dizkiete Bergarako Udalari.

Erabiltzaileek baimendutako erabileraren arabera erabili beharko dute utzitako postua eta horri dagozkion elementu eta zerbitzu komunak. Lankidetzak Gunea zerbitzu izaerako jarduerak garatzeko pentsatuta dago; esate baterako, jarduera administratiboak, komertzialak, informatikoak edota antzekoak garatzeko. Beraz, postu hau ezin izango da erabili, adibidez, fabrikazio, muntaia edo biltegi jardueretarako, ezta produktuen erakusketa edo salmenta puntu bezala...

Aldi berean, ez dira onartuko zarata edo gainontzeko erabiltzaileengan enbarazua sor dezaketen elementuak, ezta ere bertako instalazioetan eta ekipamenduetan kalteak sor ditzaketen jarduerak.

Espazioaren mantentze eta garbiketari dagokienez, erabiltzaileek egoera onean mantendu beharko dituzte instalazioak, ekipamendua eta altzariak eta erabilera ezegoki baten ondorioz sortzen diren kalteak bere gain hartu beharko dituzte. Garbiketari dagokionez, erabiltzaile bakoitza norberaren postua garbi mantentzeaz arduratuko da eta eguneko lan jarduna amaitzen denean mahaia libre utzi beharko du, paper eta elementu pertsonal guztiak kenduta. Lanerako postuan ezin izango da jan; kafea edo tea hartzeko atsedean edo topaketa gunea erabiliko da. Gune hau erabiltzen den bakoitzean garbi eta ordenan utzi beharko da guztia.

Bergarako Udalak espazioaren erabilera, ordutegiak eta gainontzeko erabiltzaileen lana errespetatzeko eskaera egiten du, bai eta erabiltzailearen batek era ezegokian jarduten duela ulertzen badute gainontzeko erabiltzaileek, Lankidetzak Gunearen udaleko arduradunari horren berri ematea.

Segurtasunari dagokionez, erabiltzaileen ardura izango da norberaren objektu pertsonalak zaintzea eta sarrera-irteerak egiten direnean ateak itxita uztea. Bergarako Udala ez da erantzule egingo Lankidetzak Gunean gertatu litezkeen objektu pertsonalen apurtze, desagertze edo antzeko gertaeren gainean.

11. artikulua – Lankidetza Gunea erabiltzeko eskubidea galtzea

Ordenantza honetan ezarritako betebeharren bat ez bada betetzen, hori Lankidetza Gunea erabiltzeko eskubidea galtzeko arrazoia izango da.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

Alkatetzari ahalmena ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko eta garatzeko eman beharreko arauak emateko, bai eta ordenantza honen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak argitzeko ere.

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.